

----- euskaldunon konparttsaren aldizkaria -----



ASTE NAGUSIA

Euskal Prozesioa
Ekitaldiak
Balorazioa

URTEURRENA
TOMAS DEUNA



Pakok panelak jartzen ditu muntaketan

ARAZO HAUNDIRIK EZ ZIREN MUNTAKETAN IZAN

Aurten ez dugu joan den urteko arazo larririk muntaketan izan. Domekan hasi ginen lanak eta iaz bezala tutuekin arazoak izan genituen. Horregatik, bertan behera utzi behar izan genituen igandean gogo handiagoz hasitako lanak; astelehenean, berriz, arazoa konpondu zen eta muntaketari gogor ekin genion.

Aurten, konpartsakide gehiagok parte hartu dute muntaketan eta horri esker ezusteko handirik gabe bukatu genuen txosna. Izan ere, goizegi lasaitu ginen eta ospakizunak hasi ginen txosna ondo bukatu barik:

atzekaldeko panel bat margotzeke zen, edarien kamarak bete barik, barra zikin zikinduta eta banderak eta kartelak jarri barik geratu ziren, hain zuzen ere.

Horrez gain, zapatuan, Amagoiak eta Maddalenek, Hau Pittu Hau-ko lehenengo txandalariak, beste arazoa topatu zuten. Txosna zabaltzeko ordu gutxi falta zirela, kalimotxerak ipini gabe zeuden.

Beraz, azken momentura arte estu eta larri ibili ginen txosna txukun ipintzeko txupina baino lehen, beti bezala. Aurten, gainera, ia ia kalimotxo gabe geratzen gara.

PREGOI ERDALDUN

Txupin garbi baten

B i l b o k o Konpartsek dena eman zuten Bilboko jaiei hasiera polit bat emateko: txupin baten alde kalejira antolatu eta konpartsa guztia k elkarrekin heldu A r r i a g a k o plazara Marijaiari ongi etorria emateko, baina pregoilariak huts egin zuten.

Udalak Aste Nagusiko pregoilaria Marivi Bilbao aktorea izango zela kaleratu zuen bezain pronto zalantza bat sortu zen Hau Pittu Hau Konpartsan: pregoia euskeraz botako ote zuela emakume erdaldun horrek. Hori ziurtatzeko harremanetan jartzen saiatu ginen Marivirekin; baina alferrik izan zen, ez genuen berarekin hitz egiteko aukerarik izan. Udalak berak Marivik pregoia euskeraz irakurriko zuela ziurtatu zigun. Txupinean,





PENAGARRIA ETA IA TXUPINEAN

alde kalejira antolatu zuten Bilboko Konpartsek



Konpartsek denetarik eraman zituen txupikalejirara

ordea, errealitatea guztiz ezberdina izan zen. “Gora Bilbao” edo “Gora Aste Nagusia” esatea ez da pregoi euskalduna botatzea; nolahi ere, Aste Nagusia gorrotatzen duen emakume horrek ez zuen pregoia bota Arriagako balkoitik, ez erdardulna ezta euskalduna ere. Marijaia ikustera joan ziren guztiak aktorearen txotxakeriak besterik ez zuten entzun. Izan ere, txotxakeri guztiak erdera hutsean bota zituen

eta, jokabid horren kontra Hau Pittu Hau-ko kide batzuk txistuka hasi ziren.

Txupin garbi baten alde

Bilboko Konpartsek txupin garbi baten alde apustu egiteari ekin diote, aurten ere. Horrexegaitik, txupina baino lehen *txupikalejira* antolatu zen San Anton zubitik Arriagako plazaraino. Arriagako Enparantza konpartsa guztiak elkarrekin batera

heltzea eta betetzea zen kalejiraren helburua, arrautz eta irinazaleak Marijaia rengandik urruntzeko asmoz.

Hortaz, bostak aldera konpartsa guztiak bildu ginen San Anton zubian eta Somera kaletik hasi ginen gure zazpi kaleetatik ibilbidea. Koordinadundek alokatutako fanfarriaz eta erraldoiaz, eta Mamikik ekarri zuen alarde mistoko konpainiaz gain, konpartsek ere denetarik eraman zituzten txupikalejirara giroa sortzeko, esaterako, danborrak, tronpetak, ikurrinak, presoen argazkiak, etab. Hau Pittu Hau-k, hain zuzen ere, turutak eraman zituen gure harri-koskorra eramateko.

Dantzatzen, edaten eta abesten Arriagara heldu ginen eta, orduan, arrautz eta irinaren kontrako lehia hasi zuten konpartsakideek. Jendeak eraman zuen zikinkeria konfiskatu saiatu zen; baina txupin garbiagoa izan bazen ere aurtengoa, arrautzak eta irina bota zituzten konpartsakideen gainera eta konpartsakideen kontra. “Hau ez da gure estiloa” izan zen Bilboko Konpartsen erantzuna.



Oierrek txapela jasotzen du Peruren eskutik

EGUN EDERRA OPARITU ZIGUN MARIJAIAK ASTELEHENAN

Hau Pittu Hau-ko kideek Bilboko jaietako astelehena gorritz daukate markatuta Aste Nagusiko egutegian eta inork ez du egun berezi hori galdu nahi. Eguraldi ederra egin zuen. Egun polita eta eguzkitsua oparitu zigun Marijaiak, beraz, eta dozenaka konpartsakide bildu ginen gure eguna ospatzeko.

Emeki-emeki agertu zen jendea txosnaren inguruan, eta elkarrekin hitz egiten eta pote batzuk

hartzen hasi ziren; beste batzuk, berriz, janaria prestazen eta mahaiak ipintzen zituzten bitartean. Bazkaltzeko orduan eguzkiak gogor jo zuen eta beste konpartsek utzitako itzalkinak ipini behar izan genituen gerizpean gozatzeko.

Bazkaldu ostean Euskara Saria eta Konpartsaren sarien banaketa hasi zen. Koldok, Ikerrek, Alvarok, Astrabuk eta Kanpik diplomak eta opariak jaso zituzten Play

Back-a hasi baino lehen.

Konpartsakide gazteenetakoak irabazi zuen Play Backa. Hain zuzen, Oierrek abeslari moduan talento haundia erakutsi zuen eta epaimahaikideek ez zuten zalantzarik izan irabazlea nor zen erabakitzeke. Pasa den urtean saria dantzari onak irabazi bazuen, aurten abeslari on baten eskuetan geratu zen saria.

Oso pozik ibili zen Oier irabazitako txapelarekin.



«Nik irabazi dut» esaten zion txapelaz galdetzen zionari. Ziur gaude ez dela irabaziko duen azkena izango, etorkizun handia daukalako Oierrek abeslari moduan.

Oierrek txapela jaso ondoren, «Hau Zorabio Hau Jokua» hasi zen. Zazpi taldek parte hartu zuten eta irabazleak Txomin, Leire, Luis Angel eta Nekane izan ziren; hala ere, talde honek lortutako garaipena zalantzan geratu zen.

Dirudenez, bete behar zuten proba bat ez zuten ondo bete eta tranpa txiki bat egin zuten. Txinatar bat topatu behar zuten, baina aurkitu zutena ez zen txinatarra, ekialdetarra baizik. Txinatar izango balitz moduan aurkeztu zuten epaileei eta proba gainditu zuten. Beste taldeen kexuak alferrik izan ziren eta Hau Zorabio Hau jokua irabazletzat eman zuten epaimahaileek.

Dena dela, beste talde batzuk ere tranpa bera egin zuten. Adibidez, lehiaketa amaitu ordoren Kanpik onartu zuen bere taldeak korear bat txinatar bezala aurkeztu zuela.

Hau Zorabio Hau jokuen probak gainditzeko baliabide ona izan dira beti «Todo a Cien» dendak. Hara joan eta denetarik topatzen da. Aurten kuleroen eta galtzontziloen bila joan ziren konpartsakideek «Todo a cien» denda batera. Ziur asko, harrituta geratu zen dendataria horrenbeste lagun kuleroak eta

galtzontziloak erosten ikusten, baina harrituago geratu ziren epaimehaleek talde baten kideek gainean eraman zituzten kuleroak eta galtzontziloak kendu zituztenean eta epaileei eman zituztenean.

Hau Zorabio Hau-k asko nekatzen du, baina euskaldunak beti daude prest jaietan ibiltzeko. Horregatik, Plaza Berrira abiatu ziren marraskiloak jai giroa sortzeko Bertso Triki Kalejiran, urtero egiten duten bezala. Ekitaldi honetan Hau Pittu Hau-ren parte-hartzea ezinbestekoa da eta aurten ere ez zuen huts egin. Plaza Berrira heldu bezain pronto dantzatzen hasi ziren Hau Pittu Hau-ko kideak eta holan jarraitu ziren Bertso Triki Kalejira bukatu arte. Gero, atsedean txiki bat hartu zuten eta berriro dantzatzeari ekin zioten



Konpartsakideak entsalada prestatzen

Hau Pittu Hau-ko kideek Euskal Guneko erromerian Amaiur taldearekin eta azken indarrak erre zituzten.



Konpartsakideek Hau Zorabio Hau jokua irabazteko proba bat betetzen



Hau Hau

SARIAK-SARIAK-SARIAK-SARIAK

KOLDOK JASO ZUEN EUSKERA SARIA



Zelia (Parrandazaleena)

HPH-REN S

Konpartsaren sari banaketan aurpegi Zeliak eta Alvarok, «Parrandazale Onena» sariak jaso zituzten, hurrenez hurrenez saria, hau da, Astrabuk «Txanok Kanpik, askotan jaso duen «Oxtia Euskaraz» saria hartu zuen. Ikerrek,

Hau Pittu Hau-k euskararen alde jarrera tinko eta sendo izategaitik ematen duen saria Koldok jaso du, aurten. Konpartsero egunean konpartsakideek erabaki zuten euskera menperatzen eta bizitzen den etorkin bati saritzea, lau hautagai artean. Lehendabiziko aukeratuak uko egin zion sariari; eta Koldok izan zuen ohorea, beraz.

Koldok urteak daramatza euskara defendatzen, euskararen ofizialtasuna

eskatzeko eta euskararen alde lan egiten. Azken garaian, Koldo Gernikako epaitegi euskalduna lortzeko borroka hasi zen, Lea-Artibaiko beste euskaltzaleekin batera, eta horren ondorioz, atxilotua, epaitua eta zigortua izan da.

«Euskaldunontzat ez dago justiziarik» lelopean egin dugu txosnaren dekorazioa, aurten. Horregaitik, Koldo izan zen hautagairik egokiena eta makila jaso zuen konpartsaren eskutik, ohitura denez.



Kanpi (Oxtia)



Astrabu (Txandalarik Txarrena)




Iker (Langileena)

SARIDUNAK


gi berriak egon ziren; hain zuzen ere, ena» eta «Konpartsakide Berririk ez hurren. Noski, betikoek ere jaso alaririk Txarrena», iaz bezalaxe, eta Txarrena» eta, lehenengoz, «Beti berriz, «Langileena» saria jaso zuen.



a Txarrena eta Beti Euskaraz)



Alvaro (Konpartsakide Berririk Onena)



Hau Pittu Hau-ren txapelduna

Ur Jokoetan gorabehera baten kronika

Gora Marijaia!



Hau Pittu Hau-ren esteti





Dirudienez, edateak gose ematen du



**Bai,
Zelia,
dena
moztu
behar
da**



ika zentroa





ASTE NAGU EKITALDI

Aste Nagusia jaietarako ez ezik aldarrikapenerako garaia ere bada. Mota guztietako ekitaldiak egiten dira, manifestazioak, kalejirak, kontzentrazioak eta era guztietako gaien alde, okupazioaren alde, presoen alde, ikurriñaren alde, zezenen



Mintzoa izan zen gure patrioaren irudia

Gure asmoa ez da Gurtero errepikatuko den ekitaldi bat egitea, baizik eta, urtero burua apur bat astindu eta gero zerbait berezia eta ezberdina egitea, beti ere euskararen eskubideen defentsan, noski. Eguna ere aukeratu genuen, Aste Nagusiko asteazkenean, b e r t s o bazkaria eta gero.

Lehenengo urtea izanda ideia bitxia sortu zen, E u s k a l Prozesio bat egitea, non guk, euskal bekatariak, barkamena eskatu behar dugun gure jatorrizko bekatuagatik, hau da euskaraz bizi nahi izateagatik. Behin ideia izanda, garatu genuen. Benetako prozesio itxura emateko bi gauza behar genituen, alde batetik jantzi

egoki bat eta bestetik gure patrioaren irudia. Lehenengoa ez zen kontu zaila izan, ihauterietarako egindako Mintzoaren irudia erabilgarri genuelako. Jantzien kontua, ordea, txosnaren montaiaren garaian eta Aste Nagusian bertan konpondu genuen, nahiko emaitza onarekin.

*Aste Nagusiaren
asteazkeneko nekeak ere
lagundu zuen zeren gure
konpartsakideen aurpegiak
sufrimenduzkoak ziren*

Bukatzeko ekitaldiaren iragarpena. Euskara gure jatorrizko bekatua denez nor hobe Adan eta Eba baino. Kartelean Ebak Adani euskaraz maitatzeko eskatzen zion sagarra luzatzen zion bitartean. Esanahia behar den moduan azaltzeko

kartelean bertan azken urteetako euskaldunen aurka jasandako hainbat erasoen berri eman genuen.

Dena prest, kontu bat kenduta, bertsolari bik hartu behar zituzten Adan eta Ebaren paperak prozesioa burutzen zen bitartean.

Ez pentsa hau dena lotzea kontu erraza izan zenik, ezta prozesioa egiteko jendea lotzea ere. Kontuan hartu behar da konpartsakide asko egun horretan

bertan bertso bazkarian egon zirela lan egiten. Dena den, dena esan behar denez, jende askok huts egin zuen, ea datozen urteotan euskararen aldeko ekitaldiak atxikimendu gehiago lortzen duen.

Ordua heldu zen eta



USIAN EUSKARAREN ALDEKO RIK EZ? BAI ZERA

aurka...., baina, orain arte ez da izan euskararen eskubideen aldeko aldarrikapen ekitaldirik. Hutsune hau bete behar zen ezinbestez eta Hau Pittu Haun erabaki bat hartu zen, urtero Aste Nagusian euskararen aldeko ekitaldi bat burutzea.

aurrera, 17 kofrade eta 2 bertsolariak abiatu ginen Zazpi Kaleetatik barne. Antza denez jantzia eta gure antzezpena oso landuta zegoen zeren jendearen aurpegia harridurarena zen. Aste Nagusiaren asteazkeneko nekeak ere lagundu zuen zeren gure konpartsakideen aurpegia k sufrimenduzkoak ziren. Euskararen aldeko aldarrikapena eskuorrien eta bertsolarien bidez zabaldu genuen.

Prozesioak hasiera neketsua izan bazuen ere bukaeran pozik geratu ginen emaitzarekin. Dena desmontatu eta Mintzoaren irudia bere lekura itzuli ostean Mari Jaiaren besoetara itzuli ginen.

Pozik gelditu ginen baina euskararen aldeko ekitaldia indartu behar da eta datorren urtean kontu alaiago bat antolatu.



Gure jantziak jende guztia harritu zuen





GARAIPENA LORTU DUGU HERRI KIROLETAN

Hainbat urte eman ditu Hau Pittu Hau konpartsak ezer irabazi gabe. Aurten, berriz, garaikurra lortu dugu Herri Kiroletan. Konpartsakide berri batek

garaipena erdietsi zuen lokotx bilketan. Hala ere, Herri Kiroletako beste probetan huts egin genuen berriro, ohitura denez, eta Ur Jokoetan ahaztekoa da gure maila.

Hau Pittu Hau-ko kide bezala lehendabiziko urtea izan du aurtengoa Danik. Hala eta guztiz ere, ausarta azaldu zen parte hartu zuen lehiaketa guztietan eta erakutsi zuen erraztasunak eskarmetu haundiko parte-hartzailea zela ematen zuen. Ostiraleko Ur Jokoetan debuta egin zuen; baina garaipena hurrengo egunean lortu zuen, Herri Kiroletan, hain zuzen ere.

Lokotx bilketa izan zuen aurreneko proba Danik Herri Kiroletan eta ezin hobeto lehiatu zen, hasiberria bazen ere. Esku-hartzaile guztien artean bizkorrena izan zen eta garaikurra lortu zuen Danik Hau Pittu Hau-arentzat.

Gainerako probetan ez zen hain fino ibili Hau Pittu Hau. Gogotsu saiatu bazen ere, agerian geratu zen marrazkiloa ez dela

jaio indar probetan lehiatzeko eta ez zuen ezer egitekorik beste konpartsek erakutsi zuten indarraren kontra.

Uraren Eguna

Aurten, Ur Jokoak arratsaldean egin zirenez, arazo gutxiago izan zituen Hau Pittu Hau-k talde bat osatzeko. Hala ere, ez genuen maila oso ona eman eta iaz lortutako



Ur Jokoetan ez ginen oso fino ibili



Dani irabazi zuen trofeoarekin

bigarren postua ezin izan genuen berdindu.

Guztira, 20 konpartsak parte hartu zuten Ur Jokoetan eta Sin Kuartelek irabazi zuen bi minutu eta 22 segunduko

TANTTAKA, TANTTAKA URIBARRI EUSKARAREKIN BUSTI

Uribarrik, auzo erdalduna izatearen ospea du, eta tamalez horrela da, baina basamorturik lehorrenetan ere badago ura topatzerik. Duela bi urte 2004ko Uribarri eta Matikoko jaietan konpartsa bat sortu zen, euskal konpartsa TANTTAKA.

Jende gutxirekin baina ilusioa sobera izanda Uribarrin jaia eta euskara

denborarekin.

Estropadetan, berriz, 21 konpartsa irten ziren eta Tintigorri izan zenean txapelduna, 10 segundu kendu zion bigarrenari, Kaskagorri, hain zuzen ere, eta GARaren bandera irabazi zuen.

Dena dela, Hontzak konpart sarekin izan zuen

Itsas-erronka Tintigorrik galdu zuenez, GARaren bandera anarkisten eskuetan geratu zen Aste Nagusia bukatu arte. Jaiak bukatu ondoren bandera berreskutaru zuten Deustuarekin.

aldarrikatzeari ekin zion konpartsa berria. 2005ean txosna ipintzea lortu zen eta euskararen eguna ezarri zen auzoko jaietan. 2006 jaietan jada lortu dugu konpartsa moduan tinkotasun bat lortzea. Orain etorkizunari begiratu behar diogu, lan zaila baina funtsezkoa dugu Uribarriko basamortua euskararekin bustitzea.

URIBARRIKO ESAERA ZAHARRAREN TXAPELKETAN GARAILEAK

Uribarriko jaietan egiten den «Esaera Zaharra» txapelketan garaipena lortu zuen Hau Pittu Hau-k. Laugarren edizioa izan zen aurtengoa eta aurrez aurre egon zen konpartsa finalean. Izan ere, Hau Pittu Hau-k aurkeztu zituen bi taldeak finalera heldu ziren; Marta, Idoia eta Ander osatutako taldeak lehiaketa irabazi zuen. Oso estua eta lehia handiko finala izan zen, eta txapeldunek puntu erdi baino ez zioten kendu bigarrenari.

Astrabu, Irantzu eta Iñigo izan ziren txapeldunordeak. Lehiaketa oso ona egin zuten aurreneko orduetan eta goizeko hoberenak izan ziren 17 puntuekin. Arratsaldean, finala egin zen. Iñigok alde egin behar zuen eta kide bat gutxiagorekin utzi zuen taldea. Kide baten hutsunea nabaritu zuten txapeldunordeek eta ezin izan zuten garaipena lortu.

Hala eta guztiz ere, maila oso ona eskaini zuten Astrabuk eta Irantzunek, eta porrota garesti saldu zuten. Dena den, lehiaketa bukatu ondoren oso haserretuta azaldu zen Astrabu. Astraburen ustetan bertsolari oso txarrak ziren eta horrek eragin handia izan zuen emaitzan.



HOGEI URTE JAI EUSKALDUNAREN ETA HERRIKOIEN ALDE

Elastiko berriak aterako ditugu , gaur egungoak

Hurrengo uztailen 20 urte beteko du Hau Pittu Hau-k, Aste Nagusia euskalduntzea erroka nagusia izan du ibilbide osoan. Hau Pittu Hau 1987 urtean sortu zen eta Bilboko lehendabiziko konpartsa euskalduna izan zen. Zorionez, gaur egun beste bi konpartsa euskaldun gehiago daude; zoritxarrez, ordea, Hau Pittu Hau-ren helburu nagusia betetzeko asko falta da eta oraindik lan horretan murgilurik dago. Aste Nagusia ez ezik, Hau Pittu Hau Bilbon burutzen

diren jai askotan euskararen presentzia indartzen du etengabe, esaterako, Tomas Deuna, Aratuzteak eta Konpartsero Eguna.

Horrez gain, Bilbotik kanpo ere izan da eta Hau Pittu Hau-ko Konpartsakideak Euskal Herriko puntu desberdinetan ikusi ahal izan dugu, halanola, San Ferminetan, Andra Mari Zuriaren jaietan eta, batez ere, Euskararen aldeko jaietan.

Aurten Hau Pittu Hau-ren 20.urteurrena izango da eta urtean zehar

hainbat ekitaldi antolatuko ditu hori ospatzeko. Oraindik, ekitaldiak finkatu barik daude, baina Ekintza Batzordeak lanean hasi da jo eta ke eta aztertzen nola gainditu 15.urteurreneko ospakizunak, hori lortzea oso zaila izango den jakin arren.

Orain dela bost urte, Euskal Herriko hiri-buru guztiak ezagutzeko Marijaia gonbidatu zuen Hau Pittu Hau-k. Bilbotik goizeko bederatzietan irten zen Marijaia marraskiloekin Gazteizera, Iruñara, Maulera, Donibane



Garazira, Baionara eta Donostira joateko. Oso ondo pasatu zuen eguna Marijaiak eta poz pozik itzuli zen Bilbora gauean, baina Bilbon geratu zirenak oso haserretu agertu ziren Marijaiarekin eta Hau Pittu Hau-ko kideekin. Zergaitia ez dago oso garbi baina Majaiaren ustetan hiru aukera daude: inori ezer esan barik joan zelako Euskal Herria ezagutzera; oso berandu itzuli zelako eta kezkatu zeuden bere ongizateaz; edota inbidia zutelako ezin izan baizuten bidai horretan lagundu. Edonola ere, Hau Pittu Hau beti egon da Marijaiarekin eta Marijaia Hau Pittu Hau-rekin; horrexegaitik, elastiko morea inoiz baino gehiago azaldu behar da Ekintza Batzordeak antolatuko dituen ekitaldietan, hots, bai Aste Nagusian, bai urtean zehar antolatzen diren ekitaldietan, hots, bai Aste Nagusian, baita urtean zehar antolatzen diren ekitaldietan ere, eta batik bat, Konpartsaren urteurrena ospatzeko.

Beste aldetik, elastiko berria aterako du Hau Pittu Hau-k, diseinu berriarekin, gaur egungoa, hain justu. Konpartsakideen arteko lehiaketa baten bitartez erabakiko da zein izango den hurrengo urteko Hau Pittu Hau-ren elastikoa. Horrez gain, 20. urteurrenaren oroitzenetan logoa ere sortuko da eta konpartsakide guztiek proposamenak aurkezteko aukera izango dute urtarileko asanbladan.

ASTE NAGUSIAREN BALORAZIOA ONA IZAN DA OROKORREAN

Hau Pittu Hau-k asanblada egin zuen azaroan Aste Nagusiarren balorazioa egiteko. Hogeita hamar konpartsakide inguru bildu ziren Indautxuko Kurruli Elkartearen Bilboko Jaiak aztertzeke eta asanbladaren ostean hor bertan afaltzeko.

Orokorrean, Jaiaren balorazioa ona izan zen. Aurten ez dugu pasa den urteko muntaketaren arazoak izan eta sasoz bukatu genuen txosna.

Aparteko aipamena merezi dute konpartsakide berriek. Batek soilik saria jaso arren, guztien jarrera ezin hobea izan da. Konpartsak antolatu dituen ekitaldi guztietan parte hartu dute eta lanean ere

ibili dira.

Txosnaren egitura zehaztu gabe geratu zen. Kontuan hartuta hurrengo urtean kaiara itzuliko garela, Azpiegitura Batzordeak karparen ordeztutuak erabiltzea baloratu zuen. Askoz politagoa da tutuekin egindako txosna, baina lan gehiago da eta tamainako lana betetzeko konpartsaren gaitasuna zalantzan jarri zen asanbladan.

Konpartsak web orrialdea indartzea erabaki zuen. Hedabide ona da gure konpartsaren informazioa zabaltzeko eta gutxiegi erabiltzen dugu. Horrexegaitik, hemendik aurrera gehiago landuko dugu gure web orrialdea.



Arrakasta handia izan zuten umeentzako jolasak



EGITARAUA

10:00etan Txosna irekiko da
 12:00etan Txalaparta saioa eszenatokian
 13:00etan Bertsolariak: Arkaitz Estiballes, Fredi Paya eta Ohiana Bartra
 14:00etan Bilboko Gaiteroak eszenatokian.
 17:00etan Erromeria
 18:00etan Saskien

zozketa
 18:30ean Erromeriaren bigarren saioa

HAU PITTU HAUren EGITARAUA

12:00etan Txosnaren aurrean geratu gara.
 14:00 Txanda daukagu laurak arte
 18:00etan Txosnaren aurrean geratu gara

DEIALDIAK

Abenduaren 16an:

* EHEren manifestazioa (Iruña)

Abenduaren 21an:

* Tomas Deuna (Bilboko Areatzan)

Urtarrilaren 13an:

* Asanblada ihauteriak prestatzeko. (Kukutzan)

Otsailaren 2an:

* Asanblada. Elastiko berriaren eta urteurrenaren logoaren aurkezpena egiteko.

Otsailaren 17an:

* Bilboko Konpartsen Inauterietako jaitziera (Bilbo)

Martxoaren 22an:

* Korrika hasiko da Karrantzan.

KORRIKA 15.

Karrantzan hasi eta Iruñan amaituko da Korrika 15. HELDU izango da Korrika honen lelo nagusia. Herriari, hitzari, elkarlanari, euskarari eta leluoari helduko zaie Korrika 15ek martxoaren 22tik apirilaren 1era bitartean.

Korrika 15ek euskal emakumea omenduko du. Euskaraz hitz eginez egiten dugu Euskal Herria eta lan horretan euskal emakumeak izan duen garrantzia eta ezinbesteko papera goraiatu nahi ditu Korrika 15ek.

